Altzako Historia Mintegia

**OHIKO BATZAR OROKORRAREN AKTA**
**ACTA DE LA ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA**

Tomasene kultur etxean, 2025eko martxoaren 20ean, Altzako Historia Mintegiaren Ohiko Batzar Orokorrari hasiera eman zitzaion arratsaldeko 07:00ean, ondoko partaide hauekin:
Antxon Alfaro Sagasti, Elena Arrieta Yarza, Ana Artieda Villanueva, Amaia Badiola León, Mikel Babiano Lopez de Sabanto, Román Cabanillas Martín, Estrelli de la Cruz Echeverria, Arantza Dorronsoro Aldasoro, Karmentxu García San Román, Miren Koruko Gonzalez Galarraga, Arantza Idiazabal Loinaz, Iñigo Landa Ijurko, Pilar Lázaro Pertierra, Maite Leonet, Anttoni Loro Moreno, Josetxo Mangas Sánchez, Maribel Manzano Herce, Nekane Maritxalar, Gotzone Ormazabal, Saioa Paulis Ule, Luismari Ralla Arruti, Jon Serrano Gamaza, Carlos Solana Arruti, Mikel Ubillos Salaberria, Jose Ramon Zapirain.

Batzarrera ezin izan dutela etorri esan dutenak: M. Carmen Arrillaga, Paki Arruabarrena, Juan Luis Cano, Javi Castro, Fernando Etxauri, Joxerra Fernández, Luma Flórez, Koro García Moraza, Mertxe Perurena, Mikel Santiago.

Hasieran, 2024. urteari dagokion Estibaus buletina banatu da, eta segidan Batzarraren gai-zerrenda aztertu da.

*En la casa de cultura Tomasene, a las 07:00 de la tarde del día 20 de marzo de 2025, se celebró la Asamblea General Ordinaria de Altzako Historia Mintegia con la participación de:*
*Antxon Alfaro Sagasti, Elena Arrieta Yarza, Ana Artieda Villanueva, Amaia Badiola León, Mikel Babiano Lopez de Sabanto, Román Cabanillas Martín, Estrelli de la Cruz Echeverria, Arantza Dorronsoro Aldasoro, Karmentxu García San Román, Miren Koruko Gonzalez Galarraga, Arantza Idiazabal Loinaz, Iñigo Landa Ijurko, Pilar Lázaro Pertierra, Maite Leonet, Anttoni Loro Moreno, Josetxo Mangas Sánchez, Maribel Manzano Herce, Nekane Maritxalar, Gotzone Ormazabal, Saioa Paulis Ule, Luismari Ralla Arruti, Jon Serrano Gamaza, Carlos Solana Arruti, Mikel Ubillos Salaberria, Jose Ramon Zapirain.*

*Comunican que no podrán asistir: M. Carmen Arrillaga, Paki Arruabarrena, Juan Luis Cano, Javi Castro, Fernando Etxauri, Joxerra Fernández, Luma Flórez, Koro García Moraza, Mertxe Perurena, Mikel Santiago.*

*La Asamblea comienza con el reparto del boletín Estibaus correspondiente al año 2024, y se pasa a tratar el orden del día de la Asamblea.*

## 1. 2024. urteko memoriaren onarpena

Idazkariak 2024 urteko memoria aurkeztu zuen:

## *1. Aprobación de la memoria del año 2024*

*El secretario presentó la memoria del año 2024:*

### 1. Altzanet

Altzanet webguneak normaltasunez lan egin du eta haren itxura eraberritzean geneuzkan espektatibak ongi betetzen ari dira.
AHMren jarduera sare sozialetan garrantzitsua eta poliki handitzen jarraitu du. Gure lana jende gehiagorengana helarazteko, pasa den urtean Instagramen gure profila ireki dugu. Horrela, datuak hauek dira:

- Facebook: 625 jarraitzaile (+33), 59.508 irakurketa (+16.760).
- Instagram: 108 jarraitzaile, 190 gogoko eta 2.583 erreprodukzio.
- Twitter: 436 jarraitzaile (+1), 17.798 irakurketa (-4.740).
- Youtube, Altzanet kanala: 165 bideo (+41), 84 harpidun eta 21.613 ikustaldi, (+1.355). AHM kanala: 61 bideo, 16 harpidun, eta ikustaldi 2.602.
- Flickr: 144 album (+33), denera 2.605 ikustaldi (+349).

### *1. Altzanet*

*La web Altzanet ha trabajado con normalidad y las expectativas que teníamos al renovar su aspecto se están cumpliendo.*
*La actividad de AHM en las redes sociales es importante y ha seguido creciendo poco a poco. Para hacer llegar nuestro trabajo a más gente, el año pasado hemos abierto nuestro perfil en Instagram. De este modo, los datos son los siguientes:*

- *Facebook: 625 seguidores (+33), 59.508 lecturas (+16.760).*
- *Instagram: 108 seguidores, 190 me gusta y 2.583 reproducciones.*
- *Twitter: 436 seguidores (+1), 17.798 lecturas (+4.740).*
- *Youtube, canal Altzanet: 165 vídeos (+41), 84 subscripciones, acumula 21.613 visualizaciones (+1.355). Canal AHM: 61 vídeos, 16 subscripciones, y 2.602 visualizaciones.*
- *Flickr: 144 álbumes (+33), acumulan 2.605 visitas (+349).*

### 2. Argitalpenak

#### 2.1 Estibaus bloga

Estibaus blogean 58 sarrera argitaratu dira. Horietatik 52 euskaraz zein gaztelaniaz daude, 2 soilik gaztelaniaz, 2 soilik euskaraz, eta beste 2 galegoz. Artikuluen kopurua atalez atal sailkaturik hauek dira: Tokiko Bilduma 9, Kronika zaharrak 2, Ikerketa 5, AltzaNatura 2, Poesia 1, Ibilaldiak 4, Notiziak 8, Kronikak egungoak 17, Iritziak 10.
Google Analytics-ek eskaintzen dituen estatistikei erreparatzen badiegu, 2024. urtean 12.966 erabiltzaile eta 33.887 bisita izan ditu. Horrela, orain dela bi urteko datuekin alderatuta (iaz ez genituen eskuratu urte osoko datuak) erabiltzaile kopurua jaitsi da (-216) eta bisita kopurua igo da (+3.479).

### *2. Publicaciones*

#### *2.1 Blog Estibaus*

*En el blog Estibaus se han publicado 58 entradas, de ellas 52 en euskera y castellano, 2 solo en castellano, 2 solo en euskera, y 2 en gallego. El número de entradas clasificadas por categorías: Colección Local 9, Crónicas antiguas 2, Investigación 5, AltzaNatura 2, Poesía 1, Excursiones 4, Noticias 8, Crónicas actuales 17, Opinión 10.*
*Si nos fijamos en las estadísticas que nos ofrece Google Analytics, el blog ha contado con 12.966 usuarios y 33.887 visitas. Comparando con los datos precedentes, podemos decir que ha descendido algo el número de usuarios (-216), pero ha aumentado el de visitas (+3.479).*

#### 2.2 Egutegia

Ikus Estibaus 54 (2024), "Altza 2025 egutegiaren eta altza.info webgune berrituaren aurkezpena" (10. or.)

#### *2.2 Calendario*

*Ver Estibaus 54 (2024), "Presentación del calendario Altza 2025 y de la web renovada altza.info" (p. 10).*

### *3. Altzako Tokiko Bilduma*

### 3. Colección Local de Altza

Pasa den urtean www.altza.info webgunearen eraberritzea burutu da. Hamasei urtez Interneten zerbitzua ederki eman ondoren, goitik behera eraberritu dugu webgunea itxura aldetik eta bilaketa sisteman. Altzainforen aro berri hau abenduaren 20an abiatu zen (ikus XX orrialdea) eta horretarako Ekialdeko Barrutiaren 3.000ko diru laguntza jaso du.
Esan bezala, irudia berritzearekin batera, bilaketan ere aldaketa sakonak egiteari heldu diogu, bi arlotan:

- AHMko paperezko argitalpen guztien edukiak Tokiko Bilduman sartu ditugu, eta, horrekin batera, Estibaus blogaren eta Altzapediaren webgunean dauden eduki guztiak bilaketaren emaitzetan eskuragarri egongo dira.
- Bilaketa aurreratua tresna osatu da, aldi berean eremu gehiago kontsultatzeko aukerak eskainiz eta komodinak erabiltzeko aukera emanez.

Hobekuntza horiek guztiekin kontsultak egiten dituztenek jasoko duten emaitzan zer non dagoen jaso eta klik batez zuzenean joango ahal izango dira bilatzen ari direna aurkitzea erraztuz.
2024. urteko datuei erreparatzen badiegu, datu basea handitzen eta osatzen jarraitu duela ikusiko dugu. Urte amaieran **23.775** (+1.053) daude datu basean katalogatuta eta horietatik **19.855** (+1.146) kontsulta daitezke www.altza.info web gunean.
Digitalizatu eta katalogatu diren dokumentu berrietatik datu hauek dira nabarmenenak:

- Artxibo-dokumentuak, **394**. Horietatik 118 Gipuzkoako Artxibo Historikoetatik eskuratutako dokumentuei eta beraien transkripzioei dagozkie.
- Argazkiak, **381**. Argazki gehienak, 237, 60., 70. eta 80. hamarkadakoak dira, Argazki sorta handiena Felix Iranzo argazkilariaren familiak utzitako da, 108. Eta, segidan, Altza Auzo Elkartearenak, Mertxe Fernandezek utziak.
- Kartografia atalean, **92** dokumentu katalogatu dira, gehienak Biblioteca Virtual de la Defensa artxibotik eskuratuak.

Berrikusitako fitxak (informazioa osatu/zuzendu, berriro digitalizatuak…): **93** dokumentu izan dira, batez ere argazkiak.
**Hedapenaren atalean,** eta www.altza.info webguneari dagokionez, Google Analitycs tresnaren arabera, 2024ean, **6.772** (+2.277) erabiltzaile, eta **92.289** (+39.814) bisita eduki ditu. Oso datu onak, zalantzarik gabe.
Casaresen ostegunetako arratsaldetan kontsulta-zerbitzua eskaini da, baita telefonozko eta posta elektronikoaren bitartez ere, denera 207 kontsulta/dei/mezu izanik.
Estibaus buletin digitalean 9 artikulu argitaratu dira espresuki Bilduman jasotako edukiak eskainiz, eta beste 2 kronika zaharren artean.
Azkenik, egutegiaren eta webgune berrituaren aurkezpenarekin batera, erakusketa txiki bat prestatu genuen Bilduman berriki sartutako dokumentuekin, "**Aldaketa garaiak (70eko eta 80ko hamarkadak)**" izenburupean. Erakusketa egutegiaren eta webgunearen aurkezpenean bakarrik ikusi ahal izan bazen ere, 2025ean Tomaseneko sarrerak eskaintzen duen gunean ikusi ahal izango da.

*El pasado año se ha llevado a cabo la renovación de la web www.altza.info. Tras dieciséis años de prestar un muy buen servicio en Internet, ha llegado el momento de actualizar la web, en su apariencia y en el motor de búsqueda. Esta nueva etapa de Altzainfo comenzó el 20 de diciembre (ver página XX) y para ello ha recibido una subvención de 3.000 euros del Distrito Este.*
*Como hemos dicho, con la renovación de la imagen hemos abordado también cambios profundos en la búsqueda, en dos aspectos:*

- *Los contenidos de todas las publicaciones en papel del AHM han sido incorporados a la Colección Local, junto con todos los contenidos disponibles en la web del blog Estibaus y de Altzapedia estarán disponibles en los resultados de la búsqueda.*
- *Se ha mejora sustancialmente la herramienta de búsqueda avanzada, ofreciendo al mismo tiempo opciones para consultar más campos y permitiendo el uso de comodines.*

*Con todas estas mejoras, quienes hagan las consultas encontrarán lo que buscan ordenado y clasificado, pudiendo acceder a los contenidos directamente según el tipo de documento que más le interese.*
*Si nos fijamos en los datos del año 2024, vemos que la base de datos ha seguido ampliándose y mejorando. Al finalizar el año hay un total de **23.775** (+1.053) documentos catalogados, de los cuales **19.855** (+1.146) se pueden consultar en www.altza.info.*

*De los nuevos documentos digitalizados y catalogados, podemos destacar los siguiente datos:*

- *Documentos de archivo, **394**. De ellos, 118 corresponden a documentos obtenidos de los Archivos Históricos de Gipuzkoa y a sus transcripciones.*
- *Fotos, **381**. La mayor parte de las fotografías, 237, corresponden a los años 60, 70 y 80. La mayor parte de las fotografías han sido cedidas por la familia del fotógrafo Félix Iranzo, 108. Y, a continuación, las de la Asociación de Vecinos Altza, cedidas por Mertxe Fernández.*
- *En el apartado de cartografía se han catalogado **92** documentos, la mayoría procedentes de la Biblioteca Virtual de la Defensa.*

*El número de fichas revisadas, completar/corregir la información, volver a digitalizar..., han sido **93**, principalmente fotografías.*
*En el **apartado de difusión**, y en lo que respecta a la web www.altza.info, según Google Analitycs, en 2024 ha tenido **6.772** (+2.277) usuarios y **92.289** (+39.814) visitas. Muy buenos datos, a todas luces.*

*En Casares, los jueves por la tarde se ha ofrecido el servicio de consulta, también por teléfono y correo electrónico, con un total de 207 consultas/llamadas/mensajes.*

*En el boletín digital Estibaus se han publicado 9 artículos ofreciendo contenidos relacionados con la Colección Local, y otros 2 como crónicas antiguas.*
*Por último, junto con la presentación de la web renovada, preparamos una pequeña exposición con documentos recientemente incorporados a la Colección, bajo el título "**Tiempos de cambio (años 70 y 80)**". Aunque la muestra solo se pudo ver durante la presentación del calendario y de la web, en 2025 está previsto que se pueda ver en el espacio que ofrece la entrada de Tomasene.*

## 4. Lekukoak proiektua

2024 urtean, Altzako memoria historikoa joan den XX. mendean berreskuratzen, zaintzen eta zabaltzen laguntzeko asmoz, Felix Iranzok utzitako argazki-testigantzetan zentratu gara bereziki ere.
Felix Iranzo argazkilari altzatarrak Altzako jendea, giroa eta eraikinak islatu zituen bere kameraren bidez 50eko hamarkadaren erdialdetik 70eko hamarkadara arte. Argazki horietako asko Altzako Tokiko Bilduman zeuden jada, partikularren dohaintzari esker. Baina iaz, bere seme Manolo Iranzok oraindik familiak gordetzen zituen 6x6 formatuko negatibo fotografiko ugari eman zizkigun. Felixek bere argazki-lanak antolatzeko zuen sistemak aukera ematen digu baieztatzeko, zati handi bat berreskuratu den arren, bere argazki-ekoizpenaren erdia baino gehiago galdu egin dela.
Digitalizazio-prozesua ez da erraza izan negatiboen tamaina bereziagatik. Horretarako, Kike Muñozen laguntza paregabea izan dugu, negatiboak garbitu baititu, ondoren eskaneatzeko. Manolo Iranzorekin batera egindako argazkien dokumentazio lan baten ondoren, argazkiak Altzako Tokiko Bilduman katalogatu dira.

## *4. Proyecto Lekukoak*

*Con el objetivo de contribuir a la recuperación, preservación y difusión de la memoria histórica de Altza a lo largo del pasado siglo XX, durante el año 2024, nos hemos centrado fundamentalmente en los testimonios fotográficos que nos legó Felix Iranzo.*

*Este fotógrafo altzatarra plasmó a través de su cámara la gente, el ambiente y los edificios de Altza desde mediados de los años 50 hasta los 70. Muchas de esas fotografías ya se encontraban en la Colección Local de Altza gracias a la donación de particulares. Pero ha sido el año pasado, cuando su hijo Manolo Iranzo nos cedió una cantidad importante de negativos fotográficos de formato 6x6 que todavía conservaba la familia. El sistema que tenía Felix de organizar sus trabajos fotográficos nos permite afirmar que, aunque se ha recuperado un parte importante, más de la mitad de su producción fotográfica se ha perdido.*

*El proceso de digitalización no ha sido fácil por el tamaño especial de los negativos. Para ello, hemos contado con la inestimable colaboración de Kike Muñoz, que ha limpiado los negativos para después escanearlos. Tras un*

Ekarpen berri horren ondoren, "Félix Iranzo" argazki-funtsak ia 200 argazki ditu, XX. mendearen bigarren erdialdean Altzako errealitatea hobeto ezagutzen laguntzeko.

*trabajo de documentación de las fotografías realizado junto Manolo Iranzo, las fotografías las hemos catalogado en la Colección Local de Altza.*

*Tras esta nueva aportación, el fondo fotográfico "Félix Iranzo" cuenta con casi 200 fotografías que nos ayudan a conocer mejor la realidad altzatarra durante la segunda mitad del pasado siglo XX.*

**5. Ibilaldiak**

**5.1 Plus 55, Altzatik abiatutako ibilbideak**

Ikus Estibaus 54 (2024), "+55 Altzatik abiatutako ibilbideak, 2024 denboraldia (abril-urria)" (22 or.).

***5. Excursiones***

***5.1 Plus 55, Caminos desde Altza***

*Ver Estibaus 54 (2024), "+55 Caminos desde Altza temporada 2024 (abril-octubre)" (p. 22).*

**5.2 Arriaga, parkea eta auzoak**

Ikus Estibaus 54 (2024), "Paseo historikoa Arriaga eta bere ingurutik". (XX or.) "Paseo historikoa Arriaga eta bere ingurutik: Interesguneak". (Ikus 24 or.)

***5.2 Arriaga, parque y barrios***

*Ver Estibaus 54 (2024), "Paseo histórico por Arriaga y su entorno". (Ver p. XX) "Paseo histórico por Arriaga y su entorno: puntos de interés". (p. 24)*

**5.3 Baztan**

Baztan, Javi Castro gidatuta. Ikus Estibaus 54 (2024), "Excursión molera por Baztan" (23. or.).

***5.3 Baztan***

*Baztan, de la mano de Javi Castro. Ver Estibaus 54 (2024), "Excursión molera por Baztan" (p. 23).*

**6. AltzaNatura**

Ikus Estibaus 54 (2024), "Naturaldia" (20. or.) eta "Txoriak begibistan" (21. or.).

***6. AltzaNatura***

*Ver Estibaus 54 (2024), "Altzako XI. Naturaldia" (p. 20) y "Pájaros a la vista" (p. 21)*

**7. Barrutia**

2023ko geldialdiaren ondoren, Barrutia otsailean hasi zen lanean. AHMren parte-hartzea, batez ere, Partaidetza eta Komunikazio lantaldean eta Memoria eta Historia lantaldearen (lehen, Memoria Historikoa) bidez eman da.

Aurreko urteetan bezala, Barrutiko elkarte taldeak biltzen jarraitu du Barrutiko Batzarraren jarraipena egiteko eta bilerak prestatzeko. Bilera horietan, iaz protagonismo nabarmena izan zuen Udalak aurkeztutako Plan Orokorraren Aurrerapenak. AHMk Udalak antolatutako saioetan parte hartu du, eta, gainerako elkarteekin batera, txosten bat aurkeztu du parte hartzeko prozesuan parte hartu duten 20 elkarteen iradokizunekin. Ikus Estibaus 54 (2024), "Ondarea eta paisaia' Plan Orokor berrian: txarretik txarrera" (37. or.) eta "Donostiako Plan Orokorraren Aurrerakin honi, ez!" (33. or.)

2024ko eta 2025eko aurrekontuei begira, AHMk bost proiektu hauek aurkeztu zituen, eta horietatik lehen biak bakarrik onartu dira:

- Altzako Tokiko Bildumaren webgunea berritzea, www.altza.info
- Errepublikako udalbatza altzatar hautetsia (1931-1937) aitortzeko ekitaldiaren inguruan egindako lanak zabaltzeko proiektua. Lanak 2025eko otsailera arte atzeratu dira.
- Altzako Udaletxearen etorkizunaz hitz egiteko proiektu parte-hartzailea. Ikus Estibaus 54 (2024), "Plan bat Altzako udalatxearentzat, orain" (36. or.)
- Altzako 50/60 urteetan egon zen immigrazioari buruzko dokumentala.
- Donostia-Errenteria galtzada historikoaren Arrieta-Sasoategi (Molinao) tartea berreskuratzeko proiektua.

Azken horri dagokionez, AHMk alegazio bat aurkeztu zion Ekialdeko Barrutiko Bide Publikoen Inbentarioari, jendaurrean jartzeko fasean, behin betiko onartzeko; une honetan ez dakigu tramite hori zertan dagoen.

***7. Distrito***

*Después del parón de 2023, el Distrito se puso a trabajar en febrero. La participación de AHM se ha dado principalmente a través de los grupos de trabajo de Participación y Comunicación, y en el de Memoria e Historia (antes Memoria Histórica).*

*Como en años anteriores, el grupo de asociaciones del Distrito se ha reunido habitualmente para hacer un seguimiento y preparar las reuniones de la Junta de Distrito. En estas reuniones, el pasado año tuvo un protagonismo destacado el Avance del Plan General presentado por el Ayuntamiento. AHM ha participado en las sesiones organizadas por el Ayuntamiento y, conjuntamente con las demás asociaciones, ha presentado un informe con las sugerencias de las 20 asociaciones que han participado en el proceso participativo. Ver Estibaus 54 (2024), "¡No a este Avance del Plan General!" (p. 33), "'Patrimonio y paisaje' en el nuevo Plan General: de mal en peor" (p. 37)´*

*De cara a los presupuestos de 2024 y 2025, AHM presentó los siguientes cinco proyectos, de los que solo los dos primeros han sido aprobados:*

- *Renovación de la web de la Colección Local de Altza, www.altza.info*
- *Proyecto de difusión de los trabajos realizados en torno al acto de reconocimiento de la corporación altzatarra electa (1931-1937) de la República. Su realización se ha retrasado hasta febrero de 2025.*
- *Proyecto participativo para tratar del futuro de la Casa Consistorial de Altza. Ver Estibaus 54 (2024), "Un plan para el Ayuntamiento de Altza, ¡ya!" (p. 36)*
- *Proyecto Documental sobre la inmigración en Altza durante los años 50/60.*
- *Proyecto de recuperación del tramo Arrieta-Sasoategi (Molinao) de la histórica calzada Donostia-Errenteria.*

*En relación con este último, AHM presentó una alegación al Inventario de Caminos Públicos del Distrito Este, en la fase de exposición pública para su aprobación definitiva, sin que haya noticias del resultado.*

**9. Elkartearen bizitza**

**Liburutegia**: Iaz AHMren liburutegia fitxatu eta ordenatzen hasi ginen, 1.500 ale inguruko funts batekin. Lanak jarraipena izango du 2025ean, elkartearen bizitzan zehar, batez ere gure lankide ahaztezin Ángel Calvoren eskutik, osatzen joan den funts interesgarri horren erabilera eta sarbidea errazteko.

**Altzako armarria**: Gure argitalpenetan erabiltzen dugun Altza Herriaren armarria eguneratu dugu. Diseino berria altzanet eta altzainfo webguneak egin dituen Felix Aizpuruari enkargatu diogu.

**Lantaldea** honela osatuta dago: Antxon Alfaro, Rafa Altube,

***9. Vida de la asociación***

***Biblioteca:*** *El pasado año hemos fichado y empezado a ordenar la biblioteca de AHM, con un fondo que se acerca a los 1.500 ejemplares. El trabajo tendrá continuidad en 2025 a fin de facilitar el uso y el acceso a este interesante fondo que se ha ido formando durante años de la mano de nuestro inolvidable compañero Ángel Calvo.*

***Escudo de Altza:*** *Hemos actualizado el escudo de Altza Herria que utilizamos en nuestras publicaciones. Hemos encargado el nuevo diseño a Félix Aizpurua, que ha realizado las webs altzanet y altzainfo.*

***El equipo de trabajo*** *está compuesto por Antxon Alfaro, Rafa Altube,*

Mikel Babiano, Iñigo Landa, Maribel Manzano, Saioa Paulis, Jon Serrano, eta Mikel Ubillos.

*Mikel Babiano, Iñigo Landa, Maribel Manzano, Saioa Paulis, Jon Serrano, y Mikel Ubillos.*

**Altak eta bajak**:

ALTAK

- Naroa Anabitarte
- Paki Arruabarrena Ibarguren
- Lierni Atorrasagasti Ronco
- Mikel Babiano Lopez de Sabando
- Fernando Etxauri Saldías
- José Ignacio Leonardo Saez de Adana, Iñaki
- Sergio Pereira Zumalakarregi

BAJAK

- Encarna Arroyo Rodríguez
- Mª Rosario Roquero Ussía
- Hilari Pagazaurtundua
- Domingo Montero Vadillo
- Carlos Olaetxea Elosegi
- Txomin Torrado Vidales
- Unai Elizasu Lertxundi
- José Miguel Sarriegi Matxain (+)
- Nekane Gastón Garmendia
- Maite Irigoien Aranberri (+)
- Itxaso Cuesta Trula
- Aingeru Ibarzabal Arizmendi (+)

Une honetan elkarteak 180 bazkide ditu.

Aurkeztutako 2024. urteko memoria aho batez onartzen da.

***Altas y bajas:***

*ALTAS*

- *Naroa Anabitarte*
- *Paki Arruabarrena Ibarguren*
- *Lierni Atorrasagasti Ronco*
- *Mikel Babiano Lopez de Sabando*
- *Fernando Etxauri Saldías*
- *José Ignacio Leonardo Saez de Adana, Iñaki*
- *Sergio Pereira Zumalakarregi*

*BAJAS*

- *Encarna Arroyo Rodríguez*
- *Mª Rosario Roquero Ussía*
- *Hilari Pagazaurtundua*
- *Domingo Montero Vadillo*
- *Carlos Olaetxea Elosegi*
- *Txomin Torrado Vidales*
- *Unai Elizasu Lertxundi*
- *José Miguel Sarriegi Matxain (+)*
- *Nekane Gastón Garmendia*
- *Maite Irigoien Aranberri (+)*
- *Itxaso Cuesta Trula*
- *Aingeru Ibarzabal Arizmendi (+)*

*En la actualidad la asociación cuenta con 180 socias y socios.*

*Se aprueba por unanimidad la memoria del año 202.*

## 2. Ekonomi balantzea – 2024

## 2. Balance económico – 2024

| | SARRERAK | GASTUAK |
|---|---|---|
| Aurreko saldoa (2024/01/01) | 5.661,55 | |
| Bazkide kuotak | 1.770,00 | 111,55 |
| Tokiko Bilduma | 5.000,00 | 525,40 |
| “Estibaus” buletina | | 1.530,65 |
| Altzanet | | 1.150,42 |
| Webgune berria (2023) | | 470,70 |
| Arriagako jaiak | | 233,76 |
| “Altza ezagutuz” programa | 600,00 | 600,00 |
| Txangoak | | 105,98 |
| Egutegia (2024-2025) | 1.350,00 | 904,11 |
| Ekipamenduak | | 816,86 |
| Altzako armarria | | 286,20 |
| Kontu korronteen kudeaketa | 30,00 | 96,00 |
| Elkartearen bizitza | | 858,73 |
| **GUZTIRA . . .** | **14.411,55** | **7.690,36** |

***SALDOA (2024/12/31): 6.721,19 €***

| | |
|---|---|
| **LABORAL KUTXA** | **6.721,19 €** |

Altza, 2025eko urtarrilaren 22a.

Diruzainak aurkeztutako 2024. urteko balantzea aho batez onartua izan zen.

*La Asamblea aprobó por unanimidad el balance de cuentas correspondiente al año 2024 presentado por el Tesorero.*

## 3. Bazkide berrien onarpena eta bajak

**Altak eta bajak**:

ALTAK

- Naroa Anabitarte
- Paki Arruabarrena Ibarguren
- Lierni Atorrasagasti Ronco
- Mikel Babiano Lopez de Sabando
- Fernando Etxauri Saldías
- José Ignacio Leonardo Saez de Adana, Iñaki
- Sergio Pereira Zumalakarregi

BAJAK

- Encarna Arroyo Rodríguez
- Mª Rosario Roquero Ussía
- Hilari Pagazaurtundua
- Domingo Montero Vadillo
- Carlos Olaetxea Elosegi
- Txomin Torrado Vidales
- Unai Elizasu Lertxundi
- José Miguel Sarriegi Matxain (+)
- Nekane Gastón Garmendia
- Maite Irigoien Aranberri (+)
- Itxaso Cuesta Trula
- Aingeru Ibarzabal Arizmendi (+)

## 3. Admisión de nuevos socios y socias, y bajas

***Altas y bajas***:

*ALTAS*

- *Naroa Anabitarte*
- *Paki Arruabarrena Ibarguren*
- *Lierni Atorrasagasti Ronco*
- *Mikel Babiano Lopez de Sabando*
- *Fernando Etxauri Saldías*
- *José Ignacio Leonardo Saez de Adana, Iñaki*
- *Sergio Pereira Zumalakarregi*

*BAJAS*

- *Encarna Arroyo Rodríguez*
- *Mª Rosario Roquero Ussía*
- *Hilari Pagazaurtundua*
- *Domingo Montero Vadillo*
- *Carlos Olaetxea Elosegi*
- *Txomin Torrado Vidales*
- *Unai Elizasu Lertxundi*
- *José Miguel Sarriegi Matxain (+)*
- *Nekane Gastón Garmendia*
- *Maite Irigoien Aranberri (+)*
- *Itxaso Cuesta Trula*
- *Aingeru Ibarzabal Arizmendi (+)*

## 4. 2025. urterako egitasmoa

2025. urtean zehar garatzeko asmoa daukagun jarduerak hauek dira:

Casares-Tomasene Kultur Etxearekin elkarlanean:

- Altzako Tokiko Bilduma
- Altzatik abiatutako ibilbideak (Plus 55)
- Altzako Naturaldia

Elkartearen barneko jarduerak:

- Elkartearen artxibategia
- Liburutegia
- 40. urteurrena (2026)

Jarduera orokorrak:

- Lekukoak
- Dokumentala: 50-60 hamarkadetako immigrazio
- Barrutia. Lantaldeak
- Altzapedia
- Ibilaldiak
- Estibaus bloga eta buletina
- 2026. urteko egutegia.
- Argazki erakusketa
- Sare sozialak
- Beste elkarteekin elkarlana.

Jarduera horien finantzatzeko bazkideen kuotak, Tokiko Bilduma kudeatzeko hitzarmenaren ekarpena, eta elkartearen diru-erreserba daukagu.

## *4. Plan de actividades para el año 2025*

*Las actividades previstas para desarrollar en 2025 son la siguientes:*

*En colaboración con la Casa de Cultura Casares-Tomasene:*

- *Colección Local de Altza*
- *Caminos desde Altza (Plus 55)*
- *Jornadas de la Naturaleza de Altza.*

*De carácter interno de la asociación:*

- *Archivo de la asociación*
- *Biblioteca*
- *40 Aniversario (2026)*

*Actividades:*

- *Lekukoak*
- *Documental: Inmigración años 50-60*
- *Distrito. Grupos de trabajo*
- *Altzapedia*
- *Excursiones*
- *Blog y el boletín Estibaus*
- *Calendario 2026.*
- *Exposición fotográfica*
- *Redes sociales*
- *Colaboraciones con otras asociaciones.*

*Para la financiación de estas actividades contamos la aportación económica de los socios y socias, el convenio de colaboración de la Colección Local, y el fondo de reserva.*

## 5. Norberak dakarrena

Atal honetan kezkaz hitz egin genuen Altzako udalaren eraikina une honetan dagoen egoeragatik, erabilera zehatzik gabe itxita baitago eta Udalak ez baitu etorkizunerako planik. Era berean, AHMk datorren urtean beteko duen 40. urteurrenari buruz hitz egin zen. Udazkenean bilera espezifiko bat egitea erabaki genuen.

## *5. Ruegos y preguntas*

*En este apartado se habló con preocupación por la situación en la que se encuentra en este momento el edificio del ayuntamiento de Altza, cerrado sin ningún uso concreto y sin que haya un plan de futuro por parte del Ayuntamiento. Así mismo, se habló sobre el 40 aniversario que cumplirá AHM el próximo año. Se quedó en hacer una reunión específica para ello en otoño.*

## 6. Aktaren onarpena

Batzarraren akta hau aho batez onartua izan zen.

Idazkaria

Iñigo Landa

## *6. Aprobación del acta*

*Se procedió a la aprobación por unanimidad de la presente acta.*

*Lehendakaria*

Jon Serrano